

Herririk Herri | 2

Ikus-entzunezkoekin gogoratuko dute bonbaketaren 75. urteurrena, Durangon



Kirola | 15

Iñigo Lariz: "Eskiak sakrifizioa eskatu arren, trukean gehiago jasotzen dut"

Kultura | 11

'Atea itxi aurretik' poesia liburua sarean ere partekatu du Jon Ander Urkiagak

DURANGO | 3

Trena lurperatu ostean libratuko diren 60.000 metro koadroak, proiektu barik

'Durango Operazioa'-ren zati bat bertan behera geratu eta gero, ordeztu proiektua zein izan beharko litzatekeen eta trenbidea nork garbitu behar duen galdetuta, alderdiek ez dute iritzi bateraturik



Kepa Aginako

BERBAZ | 7

"Erraldek engainatu egin gaituela sentitzen dugu"

Hiltegia berriro irekitzea eskatzeko, plangintza aurkeztu dute Osasun Sailean, baina auzokideen batzordeko kide Angel Longartek ez du uste irekiera posible denik.



GARAI | 4

Abian da Umerri, haur-heziketa eredu berriak bilatzeko asmoz

Urriaz geroztik hamazazpi lagunek dihardute Umerri ikas eta jolas espazioan. Umeak euren erritmoaren arabera heztea da asmoa, eta helduentzako gunea ere badela azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.



**INMOBILIARIA
SAN FAUSTO, S.A.**



PROMOZIO BERRIA
MATIENAN
Garajeak
20.000 eurotan



2 logela - 76,75 m² • 3 logela - 92,10/97,40 m² • 4 logela - 102,66 m²

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 - www.inmorehala.com

Elorrio | 4

Herriko ondare kulturala sustatzeko plana prestatzen

Durangaldea | 6

Garun-paralisia duen gazte baten aldeko tapoi bilketa

Mañaria | 5

Liburutegia lekuz aldatzeko diru-laguntza eskatu du udalak

Iurreta | 5

Iurretar bi Marokoko elkartasun rallyan parte hartzen ari dira

DURANGO

EAJko kide baten enpresari 28.000 euro dekretuz eman izana salatu du Aralarrek

Protokolo eta komunikaziorako kontratu bi sinatu ditu alkateak, eta Aralarrek "aurrekontu bako testuinguruan" egin izana kritikatu du

Durangoko alkateak kontratu bi adjudikatu dizkio InMediobai enpresari. Bat 18.000 eurokoa, publizitate eta komunikaziorako, eta bestea 10.000koa, protokolo eta catering zerbitzurako. Aralarreko Dani Maeztu eta Iker Urkizak diotenez, "aurrekontuak onartu arte hainbat elkarteren hitzarmenak geldituta daude", eta dekretu bidezko

kiak esleipen zuzenagaz emateko muga 18.000 euroan dago; badi-rudi gehiago eman gura izan diotenez bi lotetan banatu dituztela zerbitzuak". Inmediobai komunikazio enpresaren estatutueta "ez da protokolo eta catering konturik azaltzen", gaineratu dute Maeztuk eta Urkizak.

Justifikazio eske

Espedienteez gainera, Aralarrek zerbitzuen justifikazioa eta "enpresaren gaitasun teknikoak" eskatu ditu: "Ez dakigu zein irizpide jarraitu duten diru hori emateko".

Azaldu dutenez, ez daude urtean zehar horrelako kontratuak egitearen kontra, "baina aurrekontu bako testuinguruan kontratu horiek egiteko oso premia handikoa izan behar dute". Gainera, publizitate eta komunikazio irizpideak adosteko "hausnarke-ta egiteko beharra dago", Aralarreko zinegotzien ustez. ■ A. Ugalde

"Badirudi gehiago eman gura izan diotenez bi lotetan banatu dituztela zerbitzuak"

kontratazio horien espedientea eta justifikazioa eskatu dituzte prentsurrekoan. "Inmediobai enpresako kudeatzaile nagusia Durangoko Uri Buru Batzarreko kide bat da", jakinarazi dutenez.

Aralarren ustez, "lege iruzurra" egon daiteke: "Kontratu txi-

Kontratuen espedientea eta zerbitzuen justifikazioa eskatu dute Aralarreko zinegotziek



Dani Maeztu eta Iker Urkiza, martitzeneko prentsurrekoan.

Jeltzaleak "jazartzeari" utzi eta "egia osoa" eskatu dio EAJk Aralarri

EAJko kideak "jazartzeko" bidea uztea eskatu dio Aralarri EAJko bozeroale Goizti Diazek, ohar bidez. "Egia osoa esatea" eskatu dio, enpresa batez "itsutu" barik. EAJk dio protokolo eta publizitate gastua "modu bidezkoan" bideratzen dutela Durangaldeko enpresen artean.

Diazen idatziak dakarrenez, krisiak eta gastu murrizke-

tek "horrenbeste arduratuz gero", Aralarrek alderdiaren bertan hasi beharko lukeela dio EAJk: "Kideetarik baten libereazioak, batetik, eta, bestetik, zinegotzi eta parlamentari moduan besteak jasotzen dituen dietek diru publiko kopuru garrantzitsua batzen dute. Legezkoa da, baina, Aralarrek izan dituen beste jarduerak

batzuk lez, horren moraltasuna dudazkoa da".

"Gure estiloa ez den arren", EAJk dio Maeztuk 2009an aurrekontua onartzeko Durangaldeko Herri Komunikabideak "enpresari" urtero 40.000 euro bideratzea eskatu zuela: "Aste-kari bat kaleratzen duen enpresa horrek Maeztugaz harreman zuzen eta pertsonala du".

Bonbardaketa gogoratzeko, ikusentzutekoak prestatu dituzte

Egitarau zabala prestatu dute Durangoko Udalak, Gerediaga elkarteak eta Kriskitin dantza taldeak bonbardaketaren 75. urteurrenerako, 20tik 31ra



Aitziber Irigoras eta Jon Irazabal, egitarauaren aurkezpenean.

Bonbardaketako urtemuga gogoratzeko ekitaldien barruan, Txelu Angoitia argazkilariak gune berezi bat prestatu kodu Santa Susana komentuko elizan. Italiako Aviazione Legionariaren bonbek erasotutako "espazio historiko" horretan *M 31 In memoriam* izeneko ikus-entzunezko muntaia egongo da martxoaren 20tik 31ra. Duela 75 urte bizitakoak gogoratzeko ahaleginetako bat izango da, beste hainbat ekitaldigaz batera.

Aste honetan aurkeztu dute bonbardaketako urtemuga dela eta antolatuta duten egitaraua, udalak, Kriskitin dantza taldeak eta Gerediaga elkarteak.

Bere ekitaldietarako Santa Susanako eliza aukeratu du Gerediagak. Angoitien lanaz gainera, martxoaren 27an Pablo Garitonandiak bonbardaketari buruz egindako dokumentala aurkeztu-

ko dute. 1987an Juan Mari Arruabarrenak egindako lanean oinarritu dute dokumentala. Ekitaldi hori Jon Irazabalek idatzitako *Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937* liburua aurkezteko aprobetxatuko dute Santa Susanan bertan. Liburuari buruz Irazabalek azaldu duenez, "askori gustatuko ez zaion liburua da, izen asko agertzen direlako". Gerran alde bietako pertsonen ekintzak egon zirela nabarmendu du.

Gerediaga elkarteak 'Durangoko bonbardaketa' dokumentala aurkeztuko du

Egitarau zabala

Martxoaren 14an hasiko dira egitarauko ekitaldiak *Durango, el bombardeo silenciado* lanaren gaineko zine klub saioagaz. *Zerutik sua dator!*, testigantzez osotutako dokumentala ere egongo da zine klubean hilaren 20an, eta ekimenaren aurkezpena egingo dute Foru Aldundiak eta Baleuko ekoiztetxeak hilaren 30ean, Andra Mari elizpean. Poesia, kontzertuak, eta antzerkia ere egongo dira; Karrika Antzerki Taldeak *Lurra astinduz* lana aurkeztuko du martxoaren 30ean eta apirilaren 1ean. ■ A.U.

Martxoaren 20tik 31ra 'M31 in memoriam' erakusketa antolatuko dute Santa Susanan

'Zerutik sua dator!' testigantzez osotutako lana aurkeztuko dute hilaren 30ean



DURANGO

Trenak utziko duen espazioan oraindik ez dakite zer egin

'Durango Operazioa' deitutakoa berraztertzeko premia ikusten dute Durangoko talde politikoek

Trenbidea lurperatu eta gero Durangon 60.000 metro koadro geratuko dira hutsik. Udalak Eusko Jaurlaritzagaz lursail horretako zati batean, besteak beste, Zaha Hadid arkitektoak diseinatutako Euskotrenen egoitza eta luxuzko bost etxebizitza dorre egitea aurreikusitzen Barne Berrikuntzarako Plan Berezian.

Baina, trenen tailerretan eta kotelekuen espazioan zer joango den ez dago argi. Garraio Sailak Euskotrenen egoitza ez dela egingo esan zuen 2010ean, baina etxebizitza dorreei buruz ez du ezer esan eta eraikitze eskubideak Jaurlaritzak ditu. Beraz, *Durango Operazioa* deitutakoaren zati bat ez da egingo, eta bestearekin zer egingo duten ez dago argi. Obrek hiru urteko atzerapena dute, eta eraikuntza sektorea krisian dago.

Alderdien ikuspuntuak

Durangoko EAJk trenbideko lurzoru herriko "zati biak lotzeko" gune bat atondu gura du: zumardi bat, bizikletaz eta oinez ibiltze-

ko, eta autoak "garajeetara edo etxeetara sartzeko bakarrik". Horretarako, Eusko Trenbide Sareak trenbidearen lurra doan ematea eskatu dute jeltzaleek.

Jon Bingen Landabidea Bilduko zinegotziaren berbetan, "etxebizitza ugari egin gura zitzuten eta ez zuten zerbitzu azpiegiturarik planteatu. Horrelako proiektu handi bati ekin aurretik Durangoko premiak zeintzuk diren jakiteko azterketa soziodemografiko bat egin beharko litzateke".

Durangoko PSE-EEren ustez, libre geldituko den espazioari "erabilera arrazionala" emateko irtenbideak aurkitu behar zaizkio, "guztiari uko egin barik, baina guztiok hipotekatu barik". Lursaila hainbat instituziotako bulegoak batzeko aproposa izan daiteke sozialisten ustez. Udala, Lanbide, Jaurlaritza eta Segurantza Soziala aipatu ditu bere proposamenean.

Aralarreko Dani Maezturen iritziz, "Jaurlaritza eta udala berba egitera jesarri beharko lirateke". *Durango Operazioa* "ahaztu eta



Argazkiko eremuan, Euskotrenen egoitza eta bost dorreak zeuden aurreikusita, besteak beste. K.A.

zerotik hasi behar da", Maezturen ustez. Euskotrenen tailerrak eta kotxetegiak dauden lekuan zerbitzuetarako leku bat aldarrikatzen du Aralarrek eta, besteak beste, bertan Kirolene ikastegiarentzako egoitza berria egitea.

PPko Juanjo Gaztañazatorrek "argitzeko gauza asko" ikusten ditu, eta Jaurlaritzari proiektuko moldaketak egingo dituen azaltzeko eskatu dio. Espazio horretan etxebizitzak egitea begi onez ikusiko luke PPK, baina ez 18 solairuko dorreak: "Durango ezagutu eta maite dugun guztiarentzat horrelako dorre altuak eraikitzeak herria apurtzen duelako". ■ A. Ugalde

Trenbidea garbitzeko lanen finantziak eztabaidan

Trenbide berria urte bukaerarako lurpean egotea aurreikusi dute. Ondoren, zaharren elementuak kendu eta lurren kutsadura garbitu beharko dute. Lan horiek nork ordaindu eztabaidatu zuten pasa den astean Legebiltzarrean. Obrak Jaurlaritzaren eta udalaren artean finantziatzeaz mintzatu ziren. Alderdi gehien iritziak, ETSren ardura da.

Jaurlaritzak, gainera, bost etxebizitza dorre eraikitze eskubideagatik 4.200.000 euroko gainbalioa ordaindu behar zion udalari, hasierako BBPNan azaldu zenez. Diru hori trenbideko etorbidea atontzeko erabili gura zuen udalak. PSE-EEren iritziz, ordea, orain ez dago horrelako dirurik, gainbalioa lehen baitzegoen, "higiezinen egoera beste bat zenean".

Euskaraz Bizi Eguna ospatzeko, Donostiara joateko deia egin dute

Euskal Herrian Euskaraz-ek hilaren 17ko jaialdirako autobusa ipini du

Euskaraz Bizi Eguna martxoaren 17an izango da, Donostian, eta Madalenako geltokitik autobus batek irtengo du, 10:30ean. Buelta jaialdia amaitzean izango da. Egitarau zabalagoa antolatuko dute: Bonberenea Txaranga eta Porrotx, puzgarriak, kantu-jira, tailerrak, manifestazioa eta herri bazkaria, esaterako. Betagarri eta Skakeitan

taldeen kontzertuagaz itxiko dute jaialdi honen hirugarren edizioa.

Euskal Herrian Euskaraz da antolatzailea, eta Durangaldeko

Durangaldeko hainbat eragilek babesa agertu diote EHE elkartearen ekimenari

hainbat eragilek babesa agertu diote ekimenari: Berbaro euskara elkarteak, Zapaburu gazte konpartsak, Durangaldeko AEK-k, Gazte independentistek, Durangaldeko Ikasle Abertzaleek eta Kimuak aisialdi elkarteak. "Euskaldun eta burujabe izateko determinazioari beste bultzada bat ematera" gonbidatu dute. ■ M.O.



Atxikitu diren eragileetako kideak, aurkezpenean.

EAJk merkatarien iritziei entzungor egitea kritikatu du PSE-EEK

EAJk merkataritza dinamizatze proiektu bat 50.000 euroren truke enpresa bati adjudikatu izana kritikatu du Durangoko PSE-EEK, prentsa ohar bidez. Sozialistek gogorarazi dutenez, merkatarien elkarteak bere teknikariak eskaini zituen lan hori doan egiteko.

Merkataritza dinamizatze EAJk 50.000 euro adjudikatu izana kritikatu du PSE-EEK

Pilar Rios ordezkari sozialistaren berbetan, gastu bat izateaz gainera, herriko merkatarien eta oposizioko alderdien iritziei "entzungor" egin diete jeltzaleek.

Gogoratu duenez, 2010eko apirilean sozialistek eta Aralarrek bultzatutako helegitea onartu zuten, PERCO mahaia osatzeko eta ildo horiek garatzeko. "EAJk ez du kontuan hartu merkatarien iritzia lan hauen garapenerako eta hiri marka sortzeko".

"EAJk berriro erakutsi du aurrezteari eta parte-hartzeari buruz duen kontzeptua". Jeltzaleek "kudeaketa txarra" ezkutatuko gura izana salatu du ordezkari sozialistak ohar bidez. ■ J.G.

Gazte lokalen ordenantzari buruzko batzarra deitu du Bilduk

Durangoko Udalak gazte lokalen inguruko ordenantza onartu du, eta horri buruzko batzarra deitu du Bilduk, oposizioko alderdi nagusiak. Gazte lokaletako erabiltzaileak gonbidatu dituzte: zapatuan, 12:00etan, Pinondo etxean. Batzar horretan gazte lokalen ordenantza azaltzeaz gainera, denen artean balorazioa egin eta aurrerantzean jarraituko dituzten ildoak erabaki gura dituzte, jakitera eman dutenez.

Pinondo Etxean egingo dute, zapatuan, 12:00etan, gazte lokalei buruzko batzarra

Ordenantza egiterakoan, gazteen parte-hartzerik ez zela egon kritikatu du Bilduk: "Beti gazteei buruz berbetan ari gara eta sistematikoki baztertuak izan ohi dira erabaki guztietatik". Azaldu dutenez, gazte lokalen ordenantzaren inguruan udalak ez ditu gazteak informatu. ■ J.G.

Ordenantza egiterakoan gazteen parte-hartzerik ez dela egon kritikatu du Bilduk

OTXANDIO

Eskolan harrera gela zelan eratu hausnartzen ari dira gurasoak

Hainbat gurasok azaldu izan dio Mainondo guraso elkarteari herri eskolan harrera gela bat eratzeko komenentzia. Orainsu, guraso elkarteak batzarra egin du interesatuta dauden gurasoekin, beharrezan bertatik bertara ezagutzeko asmoz.

Zerbitzurako tarreak finkatu dituzte: 07:30etik 09:00etara eta 16:15etik 17:15era

Batzarrera hamar bat guraso joan ziren, eta zerbitzua beti erabiltzeko asmoa erakutsi zuten horietako sei-zazpik. Zerbitzurako tarreak finkatu zituzten: 07:30etik 09:00etara eta 16:15etik 17:15era. Orain, zerbitzua eman dezaketen enpresa batzuk begiratzaren dabilta, aurrekontuak eta parekatzeko. Oraindik ez dute erabaki zerbitzua gurasoek ordaindu edo udalari laguntza eskatuko dioten. Hilabete inguruan gurasoek erabaki bat hartuta izatea itxaroten dute. ■ J.D. / M.O.

GARAI

Ibiltzen hasi da Umerri espazioa, pausu lasai baina sendoak emanez

Heziketarako eredu berria esperimentatzen ari dira bertan urriaz geroztik hamazazpi lagun

Haurren zaintza partekatzeko eta zaintza modu berriak bilatzeko sortu du familia-talde batek Umerri. Garaiko San Migel eliza osteko etxean hartu dute lekua; urriari zabaldu zuten jolasteko eta ikasteko espazioa, iaztik proiektua mamitzen ibili ostean. Umeak bezala, helduak ere hazteko gunea dela diote bultzatzaileek.

"Egitasmo zabala da, antzeko interes, behar eta kezka dituztenei irekita dagoena". Hain zuzen ere, gurasoek gainera, etorkizuan

Umeak bezala, helduak ere hazteko gunea dela diote Umerriko bultzatzaileek

nean umea izan gura dutenak eta proiektuan interesdunak ere badaude taldean.

Euren erritmoaren arabera Helburua, honakoa: "Haurrak euren erritmoaren arabera haztea eta lasaitasun handiagoz eta presa gutxiagoz bizitzea". Ingurune natural batean, "aurreiritziek, manipulazioek, espektatibek, zigor edo sarietokirik ez duten gune baten alde", dabilta lanean.

Momentuz hamar umeren bueltan daude Umerrin, eta horietatik lau egunero doaz. Txikiak gurasoekin ere egoten dira, hezitzaileagaz gainera. Gurasoetako batek lehen hileotako balantze positiboa egin du, eta datorren ikasturterako ateak zabalik dauzkatela gaineratu du. ■ M.Onandia.



Elizbarrutiko eraikina dute alokatuta Umerrikoek.

ELORRIO

Ondare arkitektonikoa eta kulturala sustatuko dituzte

Marka eta slogan turistikoa ere sortuko dituzte

Elorrioko ondare arkitektonikoa eta kulturala sustatzeko helburuz, plan bat garatuko dute, "produktu erakargarri bihurtzeko eta herrian aberastasuna sor dezaten", Ana Otadui alkatearen berbetan. Turismoagaz, herriko beste sektore ekonomiko batzuk ere suspertu gura dituzte, baita biztanleen elkartrukatze kulturala areagotu ere, alkateak dioenez.

Herriko beste sektore ekonomiko batzuk ere suspertu gura dituzte

Marka, eslogan eta ibilbideez gainera, komunikazioa koordinatzeko plana onduko dute, eskaintza turistikoa zabaltzeko. Ondare ibilbidearen argiztatzeko turistikoak ere iragarri dute.

"Plan honegaz hasiko gara, baina gure helburua Durangaldeko etorkizunean garatuko dituen ekimen eta jarduerekin bat egitea da", adierazi du Otadui.

Bilduk ere begi onez ikusten du plana: "Ingurumena eta iraunkortasuna kontuan hartu behar dira. Elorrioko baliabideak mantentzea gura dugu, gure ondorengoek ere ezagutzeko". ■ M.O.

Merkatariek Aukera Azokara eroango dituzte produktuak

Gaur eta bihar zabalduko dute Elorrioko Merkatarik Elkartearen Aukera Azoka, neguko eskaintzaren soberakinak prezio baxuagoan eskaini eta salmentak handitzeko asmoz. Urteroko zita da asteburuko feria, neguan legez udan ere egiten dena.

Hamabi komertziok ipiniko dituzte salgai euren produktuak kiroldegian

EMeko ordezkariak azaldu dutenez, hamabi komertziok ipiniko dituzte euren produktuak salgai polikiroldegian: ileapaindegiko produktuak, umeentzako zein helduentzako arropak, opariak, gozokiak eta altzariak mahaigaineratuko dituzte standetan. Goizez 10:00etatik 13:30era eta arratsaldean 16:30etik 20:00etara zabalduko dute bi egun hauetarako antolatutako azoka berezia.

Zozketa Antolatzaileek zozketa ere egongo dela iragarri dute. Hain zuzen ere, herriko denda bik otzara bana atonduko dute euren eskaintzagaz. Zapatu arratsaldean egingo dute zozketa, 19:30 eta 20:00 bitartean, EMeko ordezkariak azaldu dutenez. ■ M.O.

ZALDIBAR

Herriko argazki zaharrak batzen dabil Ilargi taldea

Berrero ere deialdia egin du, gero erakusteko

Zaldibarko Ilargi argazki taldeak herriagaz edo herritarrekaz zer ikusia duten argazki zaharrak batzen dihardu. Dagoeneko 1.000 aletik gora dauzkate artxiboan, eta orain beste deialdi bat egin du, etxean horrelako argazkiak gordeta dituztenei zuzenduta. Eskaneatu eta digitalki gordetzen dituzte, eta originala jabeari bueltatu, adierazi dutenez.

Helburua, artxiboa potolozteaz gainera, irudiekin erakustetarako egitea da. Diotenez, "ez du ardura argazkiak apur bat urrututa badaude". Paisaiak, etxeak, lagun-taldeak, erretratuak... denetarik argazkiak batzeko interesa dute.

Telefono zenbaki hauetan lortu daiteke informazioa: 94 682 78 04 eta 620 312 401. ■ M.O.

MALLABIA

Zuhaitz Egunera begira, landareak emango dituzte

Martxoaren 12ra arte eskatu daitezke udalean

Urtero legez, herritarrei zuhaitz landareak eskatzeko aukera eman die udalak. Datorren astelehenean, martxoaren 12an amaitzen da eskariak egin ahalizateko epea. Ondoren, herritar bakoitzak bere baserriko lurretan landatu behar dituzte landareak.

Udalak 50 pago eta 50 haritz landatzeko aprobetxatuko du, Arteta baselizaren inguruan

Bestalde, udalak Arteta baselizaren inguruetan 50 pago eta beste 50 haritz landatzeko aprobetxatuko du Zuhaitz Eguna.

Bizkaiko herriek martxoan ospatzen duten Zuhaitz Egunean, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak guztira 29.100 zuhaitz banatuko ditu 92 herritan. Egun hori aprobetxatu gura dute espezie hostozabalen balioa berreskuratzeko, bereziki bertako espezieena. Haritz, pago, urki, astigar, lizar eta gereziendoak banantuko dituzte. ■ J.G.

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Eikargokidea



DIURRETA



Joan zen martxoaren 2an abiatu ziren Marokora konpondutako Seat Marbella ibilgailuan. Anboto

Elkartasun rallyan parte hartu dute bi iurretarrak, Marokon

IV. Panda Raid-en daude Iurretako Eneko Barroeta eta Arrizen Sagarduy

Seat Panda eta Marbella autoekin Marokon abiatu-tako elkartasunezko rallyan dihardue Eneko Barroeta eta Arrizen Sagarduy iurretarrak. IV. Panda Raid rallya pasa den bari-kuan hasi zuten, eta bihar iritsiko dira helmugara.

+Dendak merkatari elkartearen laguntzagaz parte hartu dute iurretarrak Panda Raid rallyan, eta parte hartzen duten 75 taldeetarikako bakoitzak 20 kilo eskola material eroan du. Essaouirako hondartzetan amaituko dute rallya guztiek, zazpi etapako ibilbidea

egin ondoren. Elgoibarko Meka Institutuak eman die eskola materiala Barroeta eta Sagarduyri, eta 20 kilo horiek Maroko hegoaldeko eskola batean utzi dituzte.

Meka Institutuak (Elgoibar) emandako 20 kilo eskola material eroan dute

Iurretarrak 5.460,64 euroko aurrekontua izan dute, "autoagaz lotutako eguneroko gastuetarako (janaria, erregaia...), segurtasunerako eta dohikuntza beharretarako". +Dendak merkatari elkar-teak 565 eurogaz parte hartu du ekimenean, "ibilgailuaren sei erru-berak erosteko".

Esperientzia berria

Lehenengoz parte hartu dute horrelako ekimen batean 35 urteko gazte iurretarrak. Eurokonpondutako Seat Marbella ibilgailuan joan dira Marokora, rallya amaitu guran: "Ilusio handia egiten digu rallyan parte hartzeak, kirol erronka ez eze, umeei ere languntzen diogu gainera", azaldu zuen irten aurretik Eneko Barroetak. ■ A.B.

MAÑARIA

Diru laguntza eskaera egin dute liburutegia lekuz aldatzeko

Errekondon ipiniko duten kultur etxera eroateko proiektua aurkeztu du Bilduren gobernu taldeak

Liburutegia lekuz aldatzeko asmoa du Bilduren gobernu taldeak. Herrian Errekondo izenagaz ezagutzen duten eraikinera eroatea da asmoa—etorkizuneko kultur etxea ere hartuko du—. Otsaila amaie-

laritzak bere gain", Endika Jaio alkateak azaldu duenez. Hilabete bi barrurako espero du gobernu taldeak Eusko Jaurlaritzan egindako eskariaren erantzuna.

Mañariako alkateak azaldu duenez, gaur egun frontoiaren alboko liburutegira ikastera joaten direnak sarri kexatzen dira, "frontoiko zarategaz", eta udal gobernuari aukera proposena iruditzen zaio liburutegia Errekondoko eraikinera eroatea.

Etorkizuneko kultur etxearen lehenengo solairuan atondu gura dute liburutegia, udal gobernuaren proiektuak jasotzen duenez. Bertan, ikasteko gela eta taldeko lanak egiteko gune bat egongo dira, besteak beste. KZgunea ere, urte batzuk barru Errekondoko kultur etxe berrira eroateko asmoa agertu dute Bilduren gobernu taldekideek. ■ I.E.

Kultur etxearen lehenengo solairuan atondu gura dituzte liburutegia eta ikasteko gela

Jaurlaritzaren diru-laguntza zenbatekoa izango den hilabete bi barru jakingo dute

ran, lekualdatze proiektua diruz laguntzeko eskaera aurkeztu zuen udalak Eusko Jaurlaritzan.

"Gehienez ere, proiektuaren kostuaren %80 hartuko luke Jaur-

Puntuetan ekimenagaz, dokumentala, etzi, udaletxean

Herriz herri zine proiektioak eskainiko dituen Puntuetan ekimenak geldialdia egingo du mañarian, martxoaren 11n. Werner Herzog zuzendari alemaniar-rrak 2007an zuzenduriko *Encuentros en el fin del mundo* dokumentala eskainiko dute, 18:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

Werner Herzog-en 2007ko 'Encuentros en el fin del mundo' filma eskainiko dute

Zinema zirkuitu konbentzionaltik kanpo geratzen diren filmak hamalau herritar eramango ditu Puntuetan ekimenak martxoan. Antolatzaileen berbetan, "interesez eta estetikoa daukan zinema" eskaintzea da ekimenaren helburua.

Filmaren emanaldiaren ostean, solasaldi edo eztabaidarako tartea ere zabalduko dute, domekako hitzorduan. ■ I.E.

ATXONDO

Musika lokalean herritarrek edukiko dute lehentasuna

Gaztetxeko espazioaren harira batzarra egin dute; ekainera arte talde batek entseatuko du

Atxondoko gaztetxeko musika lokala dela-eta, batzar berezia egin dute gazteek, barne arauak berrikusi eta hurrengo hilabeteetarako ordutegiak zehazteko asmoz. Gaurtik aurrera, lokala erabiltzeko lehentasuna edukitzeko, taldean gutxienez herriko musikari bat aritu beharko da.

Ordutegiak eta musika-ekipoaren gaineko arauak ere adostu dituzte

Gaztetxeko kide batek azaldu duenez, erabakia ez dago %100 gaztetxeko asanbladaren esku. Asanbladako kide batek parte hartu zuen batzarrean, eta gainerako taldeekin batera adostu zituzten proposamenak.

"Momentu honetan talde bakarra dago lokalean, eta izan daiteke besteren bat etortzea ere, baina beti lehentasuna herrikoak edukita". Orain arte, lau musika taldek jardun dute, eta ekainera arte batek segituko du. Udan beste talde bat sartuko ei da, gutxienez. Ordutegiak eta musika-ekipoaren gaineko arauak ere adostu dituzte.

Ekintzekin jarraituz

Horretaz aparte, gaztetxean zenbait ekitaldi programatu dituzte datozen egunetarako. Gaur, 22:00etan, *Incomodos* antzezlanaren eskainiko du Pez Kao taldeak, eta martxoaren 24rako irteera antolatuko dute sagardotegira. Atzo, martxoaren 8ko ekintzetan ere parte hartu zuten gazteek. ■ J.D.

IZURTZA

Geltokia egiteko lur zatia lagatzea adosten ari dira

Alboko enpresek aldeko jarrera erakutsi dute

Botikaren ondoan egingura duten autobus geltokiak udalarena ez den lur-zati bat ere hartzen du. Katastroan azaldu ez arren, hango metro koadro batzuk inguruko enpresenak dira. Horregatik, Udalak eta enpresetako ordezkariak batzarra egin zuten astelehe-

nean egoera zelan konpondu aztertzeko. Oraindik erabateko adostasunera heldu ez diren arren, lur zati hori lagatzearen aldeko jarrera erakutsi dute.

Hamabost bat negozio daude han eta gehienak joan ziren batzarrean. Enpresako ordezkariaren eskakizunen artean daude, esaterako, sarrera libre uztea, garajeak baitaude inguruan.

Etorkizuneko herriko jauregiaren ondoan etxebizitzak egin gura dituzte eta baliteke orduan geltokia hara tokialdatzea. ■ J.D.

Enpresen eskakizunen artean daude, esaterako, sarrera libre uztea, garajeak baitaude

ABADIÑO

Udalaren informazioa paneletan zabalduko dute

Hiru auzotan ipiniko dituzte panel elektronikoak

Traña-Matiena, Zelaieta eta Muntzaratz auzoetan, 24 orduz udalaren informazioa zabalduko dute panelelektroniko bana ipiniko dute. Udalaren informazioa eta herrian izango diren ekitaldien agenda zabalduko dute panel elektroniko horien bitartez.

Gobernu taldeak jakinarazi duenez, inguruko enpresen eta saltokien eskaintzen berri ere emango dute panel horietan: "Menuak eta bestelako iragarriak", adibidez. Horretarako, baina, aurrez eman beharko du ize-na bere iragarria paneletan agertzea gura duen enpresari edo dendariari.

Panelok, "kaleko iragarri oholen eta webgunearen bitartez zabaltzen dugun udal informazioa osatuko dute", Jose Luis Navarro alkatearen berbetan. ■ I.E.

Inguruko enpresen eta saltokien eskaintzen berri ere emango dute paneletan

Durungaldean labor

'Herrira' mugimenduaren aurkezpenak, herriz herri

Gaur, 19:00etan hasita, Goiuri kulturgunean egingo dute Iurretako Herrira mugimenduaren aurkezpena. Herriko elkarte eta norbanako guztiak gonbidatu dituzte ekitaldi horretan parte hartzera. Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde lan egiteko helburuagaz jaietako mugimenduaren batzar irekia deitu dute martxoaren 22rako Abadiñon ere: Txanpota kultur etxean, 19:00etan da hitzordua.

Istripuan hildako Xabier Zabarteri azken agurra

Domekan egin zioten urteetan Castet elkarte-ko lehendakari izandako Xabier Zabarteri azken agurra. Ehunka lagunek hartu zuten parte Olazar pilotalekuko hileta zibilean. Zaldibarrenjaio zen Zabarte, 1965ean, eta ezker abertzaleko militantea izan zen urte luzez. 1992tik 2003ra, Euskaldunon Egunkariako behargina izan zen eta Berria egunkariakoa gero, hil zen egunera arte.



Jaietako kartelen lehiaketak Abadiñon

Traña-Matienako San Prudentzio eta Zelaietako San Trokaz jaiak iragarriko dituzten kartelak hautatzeko lehiaketak abiarazi ditu Abadiñoko Udalak. Lehiaketa bietako sariak batuta, guztira, 1.450 euro banatuko dituzte. Udalaren webgunean dago lehiaketari buruzko informazio gehiago.

BERRIZ

Auzo-taxi zerbitzurako lizentzia bi banatuko dituzte

Berrizko auzo-taxi zerbitzua ezartzeko prozesuan beste pausu bat eman du udalak: osoko bilkuran aho batez onartu dute lizentzia bi banatzea. Datorren astean hasiko da kontratazio-espedita, udal iturriek informatu dutenez.

Aurtengo aurrekontuetan zehaztuta dute garraioagaz lotutako egitasmo honi ekitea, eta lehen urratsetarako 20.000 euro inbertituko dute. Auzotarrei mugitzeko erraztasuna eman guran, auzoak herriguneagaz lotuko dituzte zerbitzuak, Iurretan eta Elorrian hasitako esperientziak eredu hartuta. Errepideetan ibiliko diren taxi biek ohikoa baino prezio merkeagoa eskatuko diete bezeroei, udalagaz hitzartu eta gero.

Datorren astean hasiko da kontratazio-espedita, udal iturriek informatu dutenez

Garraioagaz lotutako egitasmo honi ekiteko 20.000 euro inbertituko dute

Lizentziarako oinarriak

Udalbatzarrak hartutako erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argiratu, lizentziaren jabe egin gura dutenek 15 eguneko epea edukiko dute eskaerak aurkezteko. Gainera, interesdunek oinarriak ikusgai izango dituzte udalaren webgunean. ■ M.O.

DURANGALDEA

Garun-paralisia duen gazte baten alde tapoi bilketa abiatu dute

Eskoriatzako da eta Mañaria eta Izurtza ere ari dira behar duen finantziarako bilketa egiten

Aratz Aldaik zazpi urte ditu eta eskoriatzarra da. Garun-paralisiagaz jaio zen eta gurpil-aulkian ibili behar du. Horrek bizi den etxebizitza osoa bere egoerara egokitu beharra dakar eta finantziarioa lortzeko plastikozko tapoien bilketa ipini dute martxan. Eskoriatzako erakundeek, komertzioek, elkarteek eta norbanakoek laguntzen dute

Aratz Aldaik zazpi urte ditu, eskoriatzarra da eta gurpil-aulkian ibili behar du

bilketan. Elkartasun modura, ekimen hori bera Mañaria eta Izurtzako udaletan ere abiatu dute.

Ekimenaren bidez, guztira, zortzi tona tapoi batu dituzte orain arte. Helburua 30 tona batzea da, etxebizitza komuna Aldaieren beharrezanetara egokitzeko adina diru batzeko.

Eskoriatzako Udaleko gizarte langilea, Beronika Solaguren, arduratzen da Mañaria eta Izurtzan dauden kaxetatik noizean behin tapoiak batu eta Arrasaten dagoen almatzen orokorrera eramateaz: "Joaten naizen bakoitzean kaxa beteta aurkitzen dut.



Izurtzako udaletxeko langileak tapoiz betetako kaxekin.

Autoko maletategia lau bat bider beteko nuen tapoi poltsekin". Udal beharginek eta hainbat herritarrek eramaten dituzte tapoiak eta oso pozik daude erantzunagaz. Burgos eta Errioxatik ere ekarri ei

dituzte tapoiak. Ekimena Durangaldeko beste udal zein komertzioetara ere zabalik dagoela adierazi dute eta interesdunentzako helbide elektronikoa eskaini dute: beronika@eskoriatza.net. ■ J.D.

Jai egunetan ixtearen aldeko manifestaziora doa +Dendak

Domekan Bilbon batzeko deialdia egin dute

+Dendak elkarteak *Jaietan denok jai* ekimenagaz bat eginez Bilbon domekarako antolatu duten manifestazioagaz bat egin du. Domeka eta jai egunetan ez zabaltzea eskatzen dute, eta erakundeek ordutegi komertzialen erregulazioa eskatzen diete aurkeztutako manifestuan: denda txikien defentsan, kontsumo arduratsu baten alde eta igande eta jai egunetan dendak zabaltzearen kontra.

Denda txikien eta lanpostuen defentsan euren konpromisoa adierazten dutela azaldu du +Dendak elkarteak. Deialdiagaz bat egin dute hainbat elkartek eta mugimendu sozialek.

"Inposatu nahi diguten mugarik gabeko kontsumoaren aurkarean", kontsumo arduratsuen aldeko deia luzatzen dutela azaldu dute, "gure ohitura eta usadioak mantenduz". ■ J.G.

Ia 20.000 lagun Aukera Azokan

"Krisian egon arren, gure historiako emaitzik onenak izan ditugu". Hala adierazi dute +Dendak elkarte arduradunek. Antolatzaileen arabera, guztira 19.790 bisita jaso ditu joan den asteburuan Landako Gunean egokitutako azokak.



Hurrengo oraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren aukera onak

GOIURIA
JATEXEA
ERRETEGIA

Goiguria auzoa 16
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 08 86
www.asadorgoiuria.com

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK - ...

2 pertsonentzako menuak zozketatuko ditugu
Bidali zure datuak:
anboto@anboto.org edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02



BERBAZ >

“Erralde zarratzea tristuraz hartuko genuke proiektuan sinesten genuelako”

Bi urterako luzapena eman zioten hiltegiari eta dagoeneko bost urte igaro direla gogorarazi du Longartek

Erralde hiltegiaren inguruan galdetuta “gezur asko” entzun dituztela azaldu du Angel Longartek, Auzokideen Batzordeko kidea. Jarrera horren arrazoen inguruko galderak erantzun ditu.

Erralde hiltegiaren inguruko eztabaida noiz sortu da auzoan?

2005eko uztailaren 30ean hiltegia itxi egin zuten galera ekonomikoen eta instalazioen egoeragatik. Urte eta erdi itxita egon ostean, 2007ko otsailean berriro zabaldu zuten.

Zein testuingurutan zabaldu zen hiltegia berriro?

Hiltegiaren instalazioak Durangoko Udalarenak dira. 2006ko apirilean Juanjo Ziarrustaren deia jaso genuen, sasoi hartan Durangoko alkate zenarena. Albiste on bat eta txar bat zituela guri esateko, hori adierazi zigun. Hiltegiaren lurretan zentro zibiko bat eraikitzeak asmoa zegoela zen albiste ona. Txarra, berriz, Erraldek idatzi bat aurkeztu zuela Udalean, bi urterako alokairu kontratua eskatuz.

Zuek zein jarrera hartu zenuten?

Alkateak argi esan zigun hiltegia zabalduko zela auzokideek zabaltzea gura bazuten. Sektorearentzako eta herritarrentzako Erralde zabaltzea zeinen garrantzitsua zen ikusita, bi urterako kontratua sinatzea adostu genuen, Berri-zen hiltegi berria eraiki arte.

Auzokideok eskaerarik egin zenioten Erralderi?

Udalagaz egindako alokairu kontratuan, klausula bat jar-tzea eskatu genuen, auzokideei ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Eta Udalak eskubidea zuen edozein unetan handik botatzeko, adostutako punturen bat betetzen ez bazuten: hiltegia zabaltzen zenetik urte biko egonaldia izango zutela instalazioetan, hiltegiak kortetan animaliek ezingo zutela gaua pasatu, zamalanak ezingo zirela 22:00etatik 06:00etara egin eta araztegiak neurriak hartuko zituztela usain txarra kentzeko. Horiexek izan ziren adostutako puntuak.

Bete dituzte?

Zabaldu eta berehala hasi ziren esandakoa ez betetzen. Bost urtean arau-hausteak etenbakoak izan dira. Ganadua gauetan uzten zuten. Eguenetan uzteko baimena eskatu ziguten eta asanbladan berriro ere eskuzabalak izan ginen eta baiezkoa erantzun genien. Hala ere, egun gehiagotan gelditzen ziren. Batez ere, Zorro-zako hiltegia zarratu zutenean: lana handitu zitzaie eta aste batzuetan bost eta zazpi gauetan ere ganadua bertan uzten zuten. Zamalanak 04:00etan egiten zituzten eta ordu horretan kamioiak garbitzen hasten ziren. Araztegia ez zuten konpontzen eta usaina jasangaitza zen, batez ere uda sasoiaren.

Urte bi pasatu ostean, zer gertatu zen?

Auzokideen ezinegona geroz eta handiagoa zen. Dena ziren berba politikak, baina proiektu berriaren inguruan arduratzen hasi ginen. Lurrak erosi zituztela eta eraikitzeari ekin behar ziotela esan zigutenean lasaitu egin ginen. Orduan, 2010ean, udaleko eta Erraldeko ordezkariekin batu ginen. Javier Azpitartek obrak 2010eko irailean hasiko zirela segurtatu zigun eta berriro ere engainatu egin gintuzten.

Zer gertatu zen orduan?

Udaleko Hirigintza Batzordeagaz alokairu kontratu berri bat egitea erabaki genuen, proiektu berria martxan jartzeko epe batzuekin eta bete ezean Udalak desalojatzeko eskubidea izango zukeen.

Hauteskundearen ondoren zuzendaritza aldatu zen.

Bai, eta Erraldeko zuzendaritza berriagaz batzorra egin genuen egoeraren berri emateko, eta proiektu berriaren bideragarritasuna frogatzeko denbora behar zutela azaldu ziguten. Abenduaren 31rako proiektuaren bideragarritasuna erakutsi ezean, beraien kabuz instalazioak utziko zituztela esaten zuen dokumentua sinatzeko eskatu genion Mikel Ansotegi Erraldeko presidente berriari, eta



Angel Longarte •

- Herria auzo elkarteko kidea
- Auzokideen Batzordeko kidea

ezetz erantzun zigun. Akordio hori ez zela posible ikusi genuen eta luzapenari ezetz esan genion. Tartean Osasun Sailak Europako araudia betearaziz jarduera eten egin zuen.

Berriro zabaltzeko aukerarik egon daiteke?

Uste dugu ez dela berriro ere zabalduko, baina erabakien zain gaude zer gertatuko den ikusteko. Itxiko balitz, sentsazio gazi-gozoa izango genuke. Batetik, auzokideek pozik hartuko lukete hainbatse urtean jasandako usain eta zaratak amaituko lirakeelako. Bestetik, tristura sortuko liguke guk ere proiektu horretan sinesten genuelako.

EHNE, harakin, langile, pastore eta garraiolarien jarrera gogor kritikatu duzue.

Beraien jarrera kritikagarria den arren, errespetagarria da. Jokatzeko izan duten moduagaz ez gatoz bat. Luzapenak eskatzen ditu EHNEk, baina egoera zein den jakinda ez da auzokideekin batzartu ere egiten. Prentsan agertu direnean auzokideen ahalegina ez dute behin ere aipatu ere egin. Langileek behin erreferentzia bat egin zuten.

Bilduk izandako jarrera ere salatu duzue.

Bildurena larriagoa dela deritzogu. Beti ulertu dut ahulenak defendatu behar zituztela. Ez dira auzokideengana etorri ere egin. Eskutitz bat bidali digute.

Proiektu berria da gakoa. Eraikiko da?

Orain Erralderen proiektu berriaren ez du inork sinesten. 2008an kreditua zuten eta lurrak erositako eta kudeaketa txarrarengatik ez zuten aurrera eraman. Erantzule bakarra Erraldeko zuzendaritza da. ■ J. Guenetxea

“Alkateak esan zigun hiltegia zabalduko zela auzotarrek gura bagenuen”

“Zabaldu eta berehala hasi ziren adostutakoa ez betetzen”

“Uste dugu ez dela hiltegia berriro martxan jarriko, baina erabakien zain gaude”

“Proiektu berriaren ez du inork sinesten. Erantzule bakarra zuzendaritza da”

EDITORIALA >

Eguneroko euskalgintza vs. Eguneroko politikagintza

DHK-ko zuzendaritzakideak eta langileak

Durangaldeko ehunka euskaltzaleren urteetako ahaleginari eta dozena bat langileren eguneroko lanari esker sendo diharduen euskarazko tokiko kazetaritza proiektua arriskuan ikusi dugu asteon, Durangoko alderdi biren arteko ikamika dela-eta. Guk geure aldetik, euskarak bestelako kultura politiko bat behar duela uste dugu, alderdikerietatik babestuko duena. Hori xe sinestuta behar egiten dugu egunero, baina, zertarako ukatu, lantzean behin inozoak sentiarazten gaituzte, aste honetan legez.

Labur: Durangoko Udalak EAJko kide bate-na den In Mediobai enpresari alkate andereak sinaturiko dekretuz 28.000 euro eman izana salatu du martitzen honetan Aralarrek, Dani Maeztu zinegotziak emandako prentsaurrekoan. Eguaztenean, prentsa ohar baten bidez erantzun du EAJk, esanaz Aralar taldeak 2009ko udal aurrekontuak onartzearen truke Durangoko Herri Komunikabideak enpresari urteko 40.000 euroko hitzarmena onartzea eskatu zuela, eta Maeztu jaunak enpresa horrekin harreman zuzena eta pertsonala duela.

Elkar ulertzen hobeto hasi gaitezten, DHK ez da enpresa bat: Durangaldeko euskara elkar-teen sortu zuten hurreko informazioa euskaraz garatzeko helburuagaz. Durangaldea komunitate trinko eta eraginkor bihurtu gura du, gure ezaugarri nagusiak, bereziki euskara, sendo geroratzeko. Jatorri eta helburu horiekin, profesional kualifikatuak kontratatzen ditu, eskualdean enplegua sustatuz, eta proiektu honekin ez da inor lukratzen. Zer gabiltza, baina, denek dakitena esplikatzen! Zoritxarrez, intentziorik onenekoek zein txarrenekoek badakite proiektu honek ez daukala etrokizunik laguntzarik barik.

Hitzarmenari dagokionez, garbi eta ozen esan gura dugu udaleko talde guztiekin berba egin eta landu genuela, osoko bilkura-tik pasatu zela, eta gehiengo onartu zela EAJ, PSE-EE eta Aralarren aldeko botoekin. Hau da, beste hainbat talde eta elkartek Durangoko Udalarekin hitzarmenak sinatu dituzten modu berean eta DHK-k Durangaldeko beste udal batzuekin sinatu ohi duen modu berean. Gogoan dugu, gainera, hitzarmen hori publiko egiteko agerraldia egin genuela Durangoko Udalean, eta Aitziber Irigoras Durangoko alkatea anderea pozarren agertu zela Gorka Barruetabeña DHK-ko lehendakari jaunari eskua emanez. Pozik geunden gu ere, Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusiari jarraiki EAJrentzat gure proiektua garrantzitsua zela sinestuta; orain, aldiz, minez jakin berri dugu aurrekontuak aurrera ateratzeko ezinbestean babestu izan gaituela urteotan.

Amaitzeko, garbi utzi gura dugu Dani Maeztu Aralar taldeko zinegotziak DHK-rekin daukan harreman bakarra Anboto astekarian bost asterik behin idazten duen iritzi zutabea dela: EAJko Aitziber Irigoras, PPko Juan Jose Gaztañazatorrek, Bilduko Urdaspal Bolinagak eta PSE-EEko Idoia Agorriak daukaten berbera.

Guk bai. Guk gure estilotik irten barik jarraituko dugu, deneriko alderdi, talde eta elkarteekin adostasunak eta lankidetzak bilatuz. Gure estiloarekin jardungo dugu aurrerantzean ere, tarteka inozoak sentitu arren. Badakigulako eta sinesten dugulako euskarazko kazetaritzak eta euskalgintzak oro har bestelako kultura politiko baten premia dutela, alderdikerietatik babestuko duena.

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak

Guztion arazoa da

Datorren martxoaren 11n, Euskaldendak elkarteko den-dariok manifestazioa egingo dugu, langileekin eta kontsumitzaileekin batera, igandeetan eta jaiegunetan saltokiak ireki ez daitezen aldarrikatzeko.

Euskal Herriko hirietako saltokiak 72 ordu egoten dira zabalik astean zehar, batez beste; datu hori ez da nabarmendu gabe geratu Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundearen inkesta egin duten bezeroen %94arentzat.

Igandeetan eta jaiegunetan saltokiak zabalteko neurria ezarri gero, hiriko merkataritza ito nahi duten horiek dira zerbait irabaziko duten bakarrak. Hala ere, lehiakortasuna ahuldu egingo da, eta herritarrek ondo nabarmenduko dute beren poltsikoetan.

Ustez joera desberdinekoak diren politikari neolibera-lak ditugu Bilbon eta Madrilan, baina denek nahi dute neurri hori zurrutu, behin eta berriz errepikatzen baitute saltokiak irekitzeko egunak ugalduz gero salmentak ere ugalduko direla. Hala ere, egia jakina da salmenta berberak izango direla, baina ordu gehiagotan banatuta. Hala, bada, lehiakortasuna galduko dugu, kostuek gora egingo dute, baina diru-sarrerek ez; eta, era horretan, gaur egun bideragarriak diren saltokiak itxi egin beharko ditugu, ezin izango baitira salgune handiekin lehiatu.

Saltokiak irekitzeko proposamen horiek gizarte-eredu oso-osoan dute eragina, denoi dagozkigu. Aldeak albo batera utzirik, merezi du Niemoeller eta Brech gogora ekartzea, eta beren hitzak egokitzea merkatuaren diktadura berri honen arabera: "Lehenik dendarien bila etorri ziren, eta nik ez nuen hitz egin ez bainintzen dendaria. Gero, langileen eta sindikalisten bila etorri ziren, baina nik ez nuen hitz egin ez bainintzen ez bata ez bestea. Azkenean, nire bila etorri ziren, baina ordurako ez zegoen inor, nire alde hitz egin zezakeenik".

Hiriko saltokiek, proportzionalki, salgune handiek baino lan gehiago sortzen dute; salmenta-mota bakoitzak metro koadroko duen langile-kopurua ikusi besterik ez dago. Eta, hala ere, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak oztopoak baizik ez dituzte jartzen sektorearen ibilbidean. Lehenik, kome-

nentziako saltokiak izan ziren, eta orain lorez eta girlandaz apaindutako hitzaldi xaramelatuak igandeetan zabaltearen alde!

Kontu bitxia da, zeren saltokiak jaiegunetan irekitzearen alde dauden horiei ez baitaie burura etortzen guk, enpresaburuok, beharbada honen beharra dugula: beren udal-txeak eta aurrezki-kutxak zabalik egon daitezten denbora gehiagoz. Horrela lana sortuko litzateke, eta ez guri ezarri nahi diguten neurriarekin. Izan ere, salgune handiek sor dezaketen lanpostuen kopurua ez da iristen neurria ezarrita saltoki tradizioaletan suntsituko liratekeen lanpostuen erdira ere. Horixe da gure "estatu-politikariak" duten maila.

Orain, ustezko onura ekonomikoa lortu nahian eta benetan ez dagoen eskariaren alde eginez, saltokiak jaiegunetan irekitzeko neurria zurrutu nahi dute, baina neurri horrek hiru enpresa-multzo handiri baizik ez die onurarik ekarriko. Orain, diru-hustearen auzia baliatuz, oinarrizko lorpen bat alde batera utz dezagun nahi dute, hain zuzen, merkataritza-arloan atsedena hartzeko dugun eskubidea gal dezagun. Bihar beste eskubide batzuk eta beste sektore batzuk egongo dira kolokan, edota, besterik gabe, zentzuzko prezioan erosketak egiteko eskubidea bera egongo da kolokan.

Guk ordezkaten dugun sektoreak proiektu egonkorra izan nahi du, eta aurre egin nahi die kapitalaren "hartu dirua eta zoaz korrika" esaldiak islatzen dituen interesei. Sektoreko lagun guztien erdiak baino gehiagok 30 urtetik gora eman ditu bertan. Merkataritza hautatu dugu gure bizitzako proiektu gisa. Horixe da gure abantaila; gure enpresez, gure lanaz ari gara. Moises Naimek dioenez, hilabeteetan pentsatzen duen batek ezin izango du suntsitu egonaria duen eta hamarkadak aintzat hartuz gogoeta egiten duen arerio bat.

Guk hamarkadak ditugu buruan, bizitza osorako proiektu bat, eta horrek bezeroaren konfiantza hartu behar du oinarritzat, ez onurak arin irabazteko asmoa. Hala, bada, balia dezagun gure alde dugun abantaila hori, eta ez dezagun onarmerkatu ikusezinak bere baldintzak jar ditzan.

Egin dezagun manifestazioa elkarrekin martxoaren 11n Bilbon.

Bittor Lizarribar - Euskaldendako Lehendakaria

Sei hankako mahaia

Denok batera herria aurrera



Urdaspal Bolinaga Bildu


Sarritan kosta egiten zait mundu aurreratuan bizi garela sinestea, errealitateak fikzioa gainditzen baitu. Ilargira iritsi gara edo sakeleko telefonoz Hong Kongo burtsa nola doan jakin dezaket, baina egunerokoan eragiten didaten faktoreetan (diru laguntzak, lanpostua...), aldiz, bakarrik gaude.

Bakarrik aurkitze horren arrazoiaren artean bi azpimarratuko nituzke: aurrerakuntza teknologikoen isolamendua (internet, telebista...), eta gobernariaren kontrol teknikak (lege bereziak...). Errotaren garaiko esaldiak zihoen bezala: "Zatitu eta garaituko dituzu" (Cesar). Isolamendu horrek, guztioi eragiten diguten lege basatiak sortu eta inposatzea ekarri du, azkeneko lan erreforma bezala.

Hasteko, dekretu bidez onartu dute. Hau da, herritarrek kontuan hartu gabe, inposatuz. Bestalde, orain gauzatzen dutenek (PP) aurreko erreforma burutu zutenei (PSOE) astakeria bat zela esaten zieten eta, orain, ez? Honek guztiak gauza bat uzten du argi, ez dutela ez bata ez besteak burutu, Patronalak baizik, eta PP eta PSOE bere zerbitzura daudela.

Dekretu honekin, enpresariak erraztasunak izango dituzte langileak kaleratzeko: gaixo zauden egunak justifikatu gabeko egun bezala kontatuz, eta kaleratzeak gutxiago ordainduz. Horrez gain, lantokietako formakuntza epea luzatu egin dute, urtebete izatetik hiru urtera, eta horiek igarotzean enpresariak aukera daukala beste lan baterako formakuntza epe berri bat has-teko lantoki berean. Lehen, debekatuta zegoen. Formakuntzan dagoen langileak 481 euro irabaziko ditu. Gainera, enpresariak probintzietan lortutako hitzarmenak okerragotzeko aukera ere izango dute.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da banako bakoitza batu eta erantzun bateratu bat ematea Espainiako gobernuari, behingoz Euskal Herria sartu duten zulo beltz honetatik atera eta gure etorkizuna erabaki dezagun. Krisi garai honek oraindik ageriago uzten baitu Euskal Herriak beste etorkizun bat merezi duela.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bidali behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. *DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02
publi@anboto.org
2012ko martxoaren 9a
10. urtea - 450 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.



aisia LEKEITIO
H***

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g

48280 Lekeitio

Tel.: 94 684 26 55

Fax: 94 624 35 00

lekeitio@aisiahoteles.com

lekeitioestaurante@aisiahoteles.com

www.aisiahoteles.com



AISIA LEKEITIO HOTELEAN AURTEN EZKONTZEN BAZARA, OPARI BEZALA:

- Autobusa doan zure gonbidatuentzat
- 2 ordu DJ-agaz
- Afari ostekoa edo txokolatezko iturria barra librean
- Deskontu garrantzitsuak argazki erreportajea www.argazkijulen.com
(zuen ezkontzarako doako gonbidapenak barne)
- Suite Junior motako logela eztei-gauerako
(edo bono baliokidea) + "Jarri Galant" pakete termala



BALDINTZA HAUEK GUTXIENEZ 100 GONBIDATUKO EZKONTZETARAKO DIRA, GONBIDATU GUTXIAGOREKIN, GALDETU HOTELEAN MANTENDUKO LIRATEKEEN BALDINTZEI ETA OPARIEI BURUZ



AISIA LEKEITIO HOTELEAN BONO RELAX EDO BONO GASTRONOMIKOA ZOZKETAN

Durangoko bonbardeaketaren zenbagarren urteurrena gogoratuko dugu Martxoren 31n?

OTSAILEKO IRABAZLEAK: Olatz Varela eta Nekane Agirrebeitia. **ZORIONAKI!**

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixemte Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



POESIA> ELKARRIZKETA

Zure poesian gau giroa eta ironia nabariak dira...

Egia izan daiteke iluntasunak presentzia berezia daukala, bai, baina ez naiz horretan bereziki fijiatu. Askotan, idazten hasten naitzenean, ez dut jakiten zer idatziko dudan. Bat-batean lerro batean pisu berezia daukan berba bat agertzen da, eta olerkiaren haria ematen dizu. Beste batzuetan, ia poema osoa daukazu buruan.

Hertzainak taldearen kanta zatiak eta idazleen aipuak dau-de. Gabriel Aresti, adibidez.

Oso aproposak dira Arestiren berbak, liburua dohainik zein helbidetan jaitsi daitekeen esateko. Bere ideologiatik gertu egon naitekeelako hautatu dut Arestiren aipua. Eta Hertzainak... Zer esan Hertzainaki buruz? Talde bat badago, Hertzainak da hori. Oso berba onak dauzkate: "Bertsio ofizial faltsuen bilduma da historia", esaterako. Oso esaldi sinpleak zelako pisua izan dezakeen erakusten du.

"Bere ideologiatik gertu egon naitekeelako hautatu dut Arestiren aipua"

Sarrionandia ere aipatzen duzu.

Bai, asko gustatzen zaidalako bere idazkera. Sarritan, gehienetan, zer esan gura duen ez dut jakiten, baina hizkuntza erabiltzeko daukan modua asko gustatzen zait. *Idazlea zu zara irakurtzen duzula* liburua asko gustatu zitzaidan, eta nire liburuaren bigarren partearen sarrerarako erabili dudan esaldia, bertan irakurri nuen: "Aita, politikan sinisten duzu? Bai, existitzen da".

Politikaz ere idatzi duzu, beraz.

Lehenengo parteko gai unibertsalen ostean, gai sozialak, politikoak, kulturalak eta linguistikoak lantzen diren bigarren parte bat dauka liburuak, eta bigarren parte honen izenburu bezala erabiltzeko proposa ikusi nuen Sarrionandiaren esaldia.



"Literaturak balio du herri bat eraiki edo gizarteak aldatzeko"

Erroteta argialetxeagaz, bere olerkien bilduma kaleratu du Jon Ander Urkiagak: 'Atea itxi aurretik'.

Gasteizen AEK-ko irakasle da eta Euskal Filologia ikasten dabil, Anboton lankide izandako zornotzarrak.

Berbak apaingarri asko barik, eta mezu zuzenak bidaltzeko baliatzen dituzu.

Uste dut literaturak, poesiak eta kulturak orokorrean —txorakeria eman dezakeen arren— balio dutela mundua aldatzeko eta herri bat eraikitzeko; eta balio dutela gizarte bat aldatzeko. Eta aldaketarako beharra badaukagula uste dut. Horretara bideratuak egoten dira nire idatzietako batzuk.

Gogoan duzu noiztik daukazun idatzeko ohitura?

Idatzi txikitatik, beti egin izan dut, ez nuke jakingo esaten noiztik, baina aspalditik idazten ditut gauza solteak. Azken urteetan idatzi dudanaren ehuneko handi bat olerkiak izan dira.

Erraz ateratako olerkiak dira, ala kostata idatzitakoak?

Inspirazioaren arabera izaten

"Askotan ez dut jakiten idazten hasi naizenak nora eramango nauen"

da: batzuetan errazago ateratzen dira eta gehiago kostata beste batzuetan. Idatzi eta tarte batera berriro irakurtzen ditut beharrezkoa bada, zerbait aldatzeko.

Zeintzuk dira idaztera bultzatzen zaituzten inspirazio iturriak?

Izan daiteke irakurritako zerbaitetik ateratako ideia bat, telebistan edo irradian entzundako kanta bat, edo zeozer idatzeko gogo sentituta lanari ekin eta ateratakoa. Horiatariko gehienek zakarretan amaitzen dute, baina noizean behin salbatzen da baten bat.

Asko idazten duzu?

Ez da erraza hori neurtzea, baina aspaldion ez dut gehiegi idatzi, egia esan. Liburuak atera arte, gehiago ez idatzeko erabakia hartu nuen. Egon naiteke hilabete bat edo bi idatzi barik, eta hurrengo hilabetean bi-hiru lan idatzi.

Eskuz egin eta ondoren pasatzen dituzu olerkiak ordenagailura?

Bai, horrela egiten dut. Liburuak olerki hauek ordenagailuan gordeta eduki ditudanetatik hartatuko aukeraketa dira. ■ I. Esteban

Interneten ere eskuragai dago 'Atea itxi aurretik' liburua



Azken lau urteetan idatziriko 60 olerki inguru bildu ditu Jon Ander Urkiagak *Atea itxi aurretik* liburuan, eta helbide honetan dago jaisteko: 'ateaitxiaurretik.blogspot.com'. "Segurutzat nire bizitzan argitaratuko dudan liburu bakarra izango da hau, eta nire buruagaz leiala izan gura izan dut: kultura denon eskura egon behar dela pentsatzen dut, eta hasieratik argi eduki dut

dohainik eskuratzeko aukera ere eskainiko nuela". Erosi gura duenarentzat, Zornotzan, Gasteizen eta Durangoko Intxaurre tabernan ipini du liburuak salgai.

Mikel Urdangarinen *Edari goxua* kantako letrarekin jokatzen du *Atea itxi aurretik* izenburuan Urkiagak. "Atea itxi aurretik egin behar baita egin beharrekoa", bere berbetan. "Desio kamutsetatik arnasestuka oihukatu genuen, ardo mikaztu orduko bueltatu zintezten kareharritzko dunen aldapak igoz", esaten du, adibidez, liburuaren kontrazaleko olerkian.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Durangaldeko bertsolariak nagusi, bigarren kanporaketan

405.5 puntu batu zituen Durangaldeko seikoteak; Arratiako bertsolariek, aldiz, 393



Martitzenean, Igorreko kultur aretoan jardun zuten Durangaldeko eta Arratiako seina bertsolari gaztek, BBK Bertsolari Gazteen Sariketa-ko bigarren kanporaketan. Durangaldeko seikoteak jaso zuen epaimahaiaren puntuaziorik handiena: 405.5 puntu.

Martxoaren 6an jokatu zen, eta 200 ikasle inguru batu ziren, martxoaren 6an, saioa bertatik bertara jarraitzeko. Epaimahai-

ren 405.5 puntu batuta, finalurrekoan aritzeko txartela eskuratu zuen Durangaldeko taldeak.

Hamazortzi urte artekoen sailean, 181 puntu batu zituzten Durangaldeko bertsolariek, Tx-

Finalurrekoan aritzeko txartela eskuratu du Durangaldeko taldeak

ber Altubek, Igor Uruburuketa Ane Alegrak. Arratiakoek, osera, 175 lortu zituzten, Ander Gerrikaetxerria, Aitor Asua eta Malen Arruabarrenaren artean.

Hemeretzi eta hogeita lau urte artekoen sailean, 224.5 puntu jaso zituzten Durangaldeko Durangaldeko Aitor Bizkarra, Julen Sololuze eta Eñaut Urubu bertsolariek. Arratiako Irati Bernaolak, Irati Astondoak eta Illart Gumuziok, berriz, 218.5 batu zituzten. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' Irakaslea



Arkatzak zorrozten...


Martxoate aite joko dator. Gure kostaldean *Canarias* gerra ontziak Nabarra "boua" ondoratu du. Beste ontziek halamoduz aurkitu dute babesa kostaldean. Gerraren dialektikan hornidura lortzeko ezinbestekoa den korridorea faxisten esku gelditu da. Intxortan, Otxandion, Kanpazarren, Kalamuan, milizianoek, anarkistek, komunistek, gudariek, ahal duten moduan eusten diete posizioei. Mola italiar zein alemaniarren laguntzarekin hasi da zirriborrazten airez egingo dituzten erasoak, hegazkinen hegotean dauden sagu-zaharrak, gammada-gurutzeak zein esbastika distiratsua jarritz.

75 urte beranduago beste arma batzuk erabiliz gertaera hauek gogora ekartzen ditugu. Liburuak, komikiak, pelikulak, argazkiak, antzezlanak, koreografiak dira gure lubakiak. Bertatik faxistei aurre egiten saiatzen gara, eta nahiz eta batzuentzat gogora ekartze hau aspergarria eta gogaikarria izan, guk gure zereginean jarraitzen dugu. Oraindik ere asko esateko dagoela pentsatzen dugulako. Gure lubakian, gaur egun ematen diren gatazken eta gogora ekartzea nahi dugunaren antzekotasunez hitz egiten dugu. Sasoi haietan diseinatutakoa gaur eguneko historian erabili baita, behin eta berriro.

Estrategia militarrean ezinbesteko tresna bilakatu ziren herri-tarren kontra airez egindako bonbardaketak. Arma berri haren ideia gure burmuinetan gelditzen da oihartzun nekaezin bezala: etsai nagusia ez dira indar militarrik, herritarrak baizik. Horren lekuko, Gernika, Londres, Dresden, Hiroshima, Nagasaki, Hanoi, Sarajevo, Gaza, Bagdad... Agian, Mola jeneralaren estrategia munduko akademia militar guztietan erabiltzen da, ezinbesteko ikasgai bezala.

Susmoak susmo, gure lubakian arkatzak zorrozten, ahotsa lantzen, soinu tresnak prestatzen, kameran lenteak garbitzen, zapa-tilak eta jantziak josten jarraitzen dugu. Ziur nago honako hone-tan faxistak ez direla Durangon sartuko.

ERAKUSKETA > ESKULTURAK



Iñigo Arregi arrasatearraren eskultura lanak, Durangon

Martxoan egongo da erakusketa zabalik Arte eta Historia Museoko lehenengo solairuan

Iñigo Arregi (1954, Arrasate) artistaren eskultura lanek beteko dute Durangoko Arte eta Historia Museoko lehenengo solairua, martxoaren 30 arte. Aurten, besteak beste, Eibarko erakusketa kolek-

tibo batean eta Bartzelonako nazioarteko azoka batean erakutsi du artistak bere lana. 1973tik hainbat herri eta hiritan ipini izan du bere obra erakusgai. Gainera, Arrasate bere jaioterrian, Aretxa-

Altzairuan landutakoak dira erakusketan bildutako lan gehienak

Tintagaz eta arkatzagaz kartoi gainean egindako zuri-beltz eta gris koloreko erliebeak ere ipini ditu ikusgai Arte eta Historia Museoko aretoaren hormetan Arrasateko artistak.

XX. mende hasierako euskal eskultore handien oinordekoa da Arregi

Tintagaz eta arkatzagaz kartoi gainean egindako lanak ere, erakusketan

Arrasatearra, "XX mende hasierako euskal eskultore handien oinordekoa da; haiengandik ikasizuen jatorriarekiko fidela izaten eta hutsa zizelkatzen", dio Arantza Otaduy artearen historiaren lizentziatuak aurkezpen orrian. "Euskal eskultore gazteen eta Jorge Oteiza maisu handiaren bitarteko zubia da Arregi, eta berrari esker, artista gazteek oriotarrena lana ezagutzen dute".

Martitzenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara dago erakusketa zabalik; eta asteburuan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. ■ I.E.

baletan edo Durangaldean ere (Elorri) bere eskulturak kalean kokatuta dauzka Iñigo Arregik.

Altzairuan landutako piezak dira Arregik Durangora ekarri duen erakusketan batutako gehienak —tamaina handikoak zein txiki-gokoak—, baina badauzka zura-gaz egindakoak ere.

Eguneroko bizitzako materialak dira erakusketako eskulturren lehengaiak, "ateak, erromarak, leihoak eta giltzak", erakusketaren aurkezpen orrian Arantza Otaduy arte kritikariak azaltzen duenez.

ZINEMA > EMANALDIAK

Laburbirak euskarazko zortzi film labur ekarriko ditu martxoaren 15ean eta 18an

Plateruenean eskainiko dituzte Topaguneak antolatutako bederatzigarren zirkuituko ikus-entzunezkoak

Euskara elkarleen Topagunea federazioan batutako elkarleak bultzatuta, Film Laburren IX. Zirkuitua antolatuko dute: Laburbira. Euskal Herriko 27 herritara eta Londres eta Parisera euskarazko zortzi film eroango ditu ziklo horrek. Tartean, Durangon egongo dira ikusgai, martxoaren 15ean eta 18an, Plateruenean. Martxoaren 15eko emanaldian, bost film emango dituzte: *Hemen nago*, Lekeitioko Zine eta

Bideo Bileran fikziozko film laburrik onenaren saria jaso zuen filma; *Izena duena*, animazioa; *Urrezko eraztuna*, Jon Garañoren (80 Egunean) zazpi minutuko filma; Parisetik etorrita, Gotzon Elortzak 1960ko hamarkadan Bizkaian grabatutakoa *Aberria*; eta *Ohe azpiko zera*, David Zabala eta Paul Urkijo Arte Ederretan lizentziatuek iaz elkarlanean zuzendutakoa.

Hain zuzen, Zabala gonbidatu dute martxoaren 15eko emanaldi horretara, zuzendari legez bizi-tako esperientzia kontatzeko.

Martxoaren 18an, berriz, Laburbira zikloko hiru film egongo dira ikusgai: *Zeinek gehiago irauten*, *Kantuka revolta permanent*, eta *Instalacion*.

Gainera, Berbaro elkarleak gonbidatuta, Durangaldeko sortzaileen ikusentzunezko bi ere eskainiko dituzte Plateruenean: *Slackline*, *grabitateari erronka* eta *Aisialdirako aukerak*. ■ I.E.

Euskal Herriko 27 herritan, Londresen eta Parisen ere emango dira

‘Ohe azpiko zera’ lanaren David Zabala zuzendaria gonbidatu dute saiora



EMANALDIAK >

Musika, dantza, eta antzerkia flamenkoagaz, Durangaldean

Emanaldi bikoitza eskainiko du Choni Compañía Flamenca taldeak asteburu honetan, Durangaldean. Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen *La gloria de mi mare* ikuskizuna eskainiko dute. Martxoaren 10ean, Elorrioko Arriolan, 19:00etan. Eta Durangoko San Agustín kulturgunean, martxoaren 11n, 19:00etan.

Artistak bere amagaz duen harremana modu ironikoan jorratzen du

Andaluziako kantu flamenkoa eta koplak tradizionalak ditu oinarri, eta artistak bere amagaz duen harremana modu ironikoan jorratzen du obrak.

Asuncion Perez dantzariak, Juanjo Macias aktoreak, Alicia Acuña kantariak eta Raul Cantizano gitarristak jardungo dute Elorrioko eta Durangoko antzokietako oholtzetan. ■ I.E.

MUSIKA > AURKEZPENA

Elorrion estreinatuko du ‘Al amanecer... seguir soñando’ Doctor Deseok

Martxoaren 13an aurkeztuko dute hamahirugarren diskoa, prentsaurrekoan; 16an da lehenengo zuzeneko, Arriolan

Doctor Deseo talde bilbotarraren kanta berriak, lehenengoz, Elorrioko Arriola antzokian eskainiko dituzte zuzenean: martxoaren 16an, 22:30ean. Hiru egun lehenago aurkeztuko dute disko berria prentsaurrekoan, Bilbon.

Al amanecer... seguir soñando izenburua dauka Doctor Deseo taldeak Baga Biga disketxeagaz kaleratu duen diska, ibilbideko hamahirugarrenak.

“Formatu intimu, magiko eta berritzailean” eskainiko dituzte diskoa aurkezteko kontzertuak, taldearen webgunean aurreratu dutenez. Zuzeneko horietan, “beste behin ere moldeak hautsi, eta lankidetzaz ugari” izango dituzte-lan iragarri du taldeak: hari-instrumentuak, saxoa, klarineta, flau-

“Formatu intimu, magiko eta berritzaileko” zuzeneko izango da



ta doinuak izango dira, esaterako, Elorrioko Arriolako lehenengo kontzertu horretan entzungai.

Bost musikaririk inguratuta jardungo du birako zuzenekoetan Francis abeslariak.

Bost musikaririk inguratuta jardungo du Francis abeslariak

“Antzoki enblematikoetan bira eskusiboa burutzeko” pentsatu dute diskoa, taldeak azaldu duenez. Martxoan Bilbon eta Donostian, eta apirilean Bartzelonan joko dute, esaterako. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 10 19:00etan
LOKALEROAK SAIOKO GALA
JAIALDIA. Sarrera doan.

MARTXOAK 15-18 19:00etan
LABURBIRA
FILM LABURREN IX. ZIRKUITUA
Sarrera doan.

MARTXOAK 17 19:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDI IBILTARIA
Sarrera doan.

www.plateruena.net

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LA GLORIA DE MI MARE Choni Compañía Flamenca

Martxoak 11 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14, durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

Jatetxe gida



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo katering. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

@anbotokirola

KIROLAK >

“Mendiko eskiak sakrifizioa eskatu arren, trukean jasotzen denak ez du preziorik”



DATUAK

Izen-abizenak: Iñigo Lariz
Adiña: 28 urte
Herria: Elgoibar
Ogibidea: Gorputz-
 hezkuntzako irakaslea
 Durangoko institutuan
Kirolean: Mugarra Triatloi
 Eskolako arduraduna

TXAPELKETAK

- 2012an: Euskal Herriko
 Mendi Eskiko txapelketa
 bakarka
 - 2011n: Euskal Herriko
 Mendi Eskiko txapelketa
 kronoigoeran

gara entrenatzera eta abar. Baina gehien asebetetzen nauen kirola ere bada, duda barik. Mendiaren handitasuna, elurraren xarma, lehiaketa... Sakrifizioak egin behar diren arren, trukean jasotzen dudana askoz balioetsuagoa zait, ez du preziorik. Gainera, kirol minoritarioa denez, ia denok elkar ezagutzen dugu. Askok elkarrekin entrenatzen dute, eta, zelan esan, badago halako hurbiltasun bat, hartu-emanak sendotzeko balio duena.

Oraintsu jokatu den Euskal Herriko Mendiko Eski Txapelketa irabazi du Iñigo Larizek. Lehia estua mantendu zuen Javier Tirapu nafarragaz. Elgoibartarra Mugarra Triatloi Eskolako arduraduna ere bada gaur egun.

Lasterketan etsai nagusi bi izan zenituen: zero azpitik 14 graduko tenperatura eta Javier Tirapu nafarra.

Horrela da. Alde batetik, hotz ikaragarria egin zuen. Hori berez ez da traba bat, zenbat eta hotz handiagoa elurraren egoera hobea izaten delako, baina mendi lepoetan eta tontorretan hotz handia pasatu genuen benebenetan. Bestalde, Javierrek eta biok denboraldi osoa daramagu norgehiagokan, bata bestarengandik gertu. Egun hartan bera ni baino apur bat hobeto zegoen fisikoki, baina gorantza irabazten zidan tartea beheranzkoan jaten nion. Momentu batean makila galdu zuen eta aurreratu egin nuen. Ondoren, erori egin nintzen eta berak aurreratu ninduen. Handik zati batera bera erori zen eta berriro aldea atera nion. Lasterketa emozionantea izan zen.

Urtarrilean Espainiako Txapelketan 23. amaitu zenuen sailkapenean eta 15. seniorretan. Gustura emaitzagaz?

Pozik nago, baina zapore gazi-gozoa geratu zitzaidan. Oso sasoi puntu onean heldu nintzen lasterketara. Banekien katalanak eta andorrrak gaur egun puntu bat gorago daudela, mendiak gertu dituztelako, baina estrategiak huts egin zidan. Bizkorregi hasi eta azken zatian ahulaldia

eduki nuen. Ondo ibili izan banintz, 10. amaitzeko aukerak izango nituela uste dut.

Kronikak irakurrita, zorte txarra ere izan zenuela esan daiteke.

Egia da, bai. Lasterketa ona egin ten nenbilela eski bat galdu nuen. Berriro martxan hasterako, galduta nituen hainbat postu. Orduan erritmo bizia ipini nuen galdutakoa berreskuratu guran. Ahalegin horrek faktura pasatu zidan azken txanpan.

Asteburu honetan Euskadiko Kopa osatzen duten lau probetatik azkenean lehiatuko zarete, eta badituzu irabazteko aukerak. Irabazteko aukerak badaude, baina gax ikusten dut, Miguel Caballero madrildarra aurretik dagoelako. Euskalduna ez izanagatik, proban parte hartu dezake eta puntuagarria da berarentzat ere. Zerbait arraroa gertatu beharko da Caballerok ez irabazteko.

Munduko Kopako probaren baten ere lehiatu zara.

Bitan lehiatu naiz, Andorrrakoan eta Gavarnie-koan (Erdialdeko Pirinioak, Frantzia). Egia esanda, oraindik dezente falta zaigu munduko kopako onenen mailara heltzeko. Andorran sekulako mailan aritu nintzela uste dut eta, hala ere, 50. amaitu nuen. Gaine-

ra, lasterketa horretako maila ez zen egon zitekeen altuena. Ni esperientzia bizitzera eta gure benetako maila zein den ezagutzera joan nintzen.

Nortzuk dira hain gaineratik dauden horiek?

Italiarriak eta suitzarrak batez ere. Kilian Jornet kataluniarra ere hor dago. Kirol hau Alpeetatik dator eta igartzen da.

Zure kirol ibilbideko sasoirik onenean zaude?

“ Italiarrik eta suitzarrak gaineratik daude. Kirol hau Alpeetatik dator eta igartzen da ”

“ Triatloi eskolan gaztetxoekin lan egitea esperientzia aberasgarria da niretzako ”

Txirringularitzan ibili nintzen sei urteetan hobeto egon nintzen, entrenatzeko ere denbora gehiago nuelako. Baina bizikleta utzi ondoren, oraintxe da fisikoki ondoen sentitzen naizen sasoi.

Txirringulari sasoiak Cafes Baquen ere aritu zinen. Joan zen astean aurkeztu zuten taldea. Egoera dagoen moduan egonda, ez da gutxi.

Krisia toki guztietara ailegatzen ari da. Txirringularitza taldeek babesleak dituzte eta euren baitan daude. Cafes Baquek 34 urte daramatza taldea ateratzen eta marka handia da. Nik urte bi eman nituen han eta neure talde moduan sentitzen dut.

Kanpotik begiratuta, ematen du mendiko eskia sakrifizio handia eskatzen duen kirola dela.

Bai, bada, baina nik ez dut horrela bizi. Pirinioetara sarritan joaten

Mugarra Triatloi Eskolako arduraduna ere bazara. Zer moduz moldatzen zara gaztetxoekin?

Triatloi eskolan egiten dudana oso aberasgarria da niretzako. Zortzi urtetik hasi eta 18 urtera arteko gazteak ditugu eta adin bakoitzaren eskakizunetara moldatu behar dugu. Urteak gero eta gazte gehiagok izena ematen dute eta hori pozgarria da. Triatloia bakarkako kirola da, baina taldearen balioak erakusten saiatzen gara, jokoen bidez.

Martxoaren 31n Durangoko duatloian parte hartuko dute?

Gaztetxoekin goizez ibiliko dira. Nagusien lasterketak distantzia olinpikoa duen arren, gazte mailakoek ere parte hartu dezakete eta ea baten bat probatzera animatzen den. ■ J.Derteano

> Bideoa: www.anboto.org



EBA mailan gozatzetik Lehen Mailan sufritzera

Irregularitasunak jaitsiera fasera kondenatu du Tabirako; hainbat mailaren egokitzapena dela-eta zazpi taldek galduko dute maila



Jaitsiera fasean garaipen biren barruan daude hamarretik zazpi talde. Kepa Aginako

Urtebete erabat aldatu da Tabirako Baqueren egoera, gizonen talde nagusia. Klubaren 50. urteurreneko ospakizunak EBA mailan gonbidatuta jokatu ostean, orain bere ohiko Lehen Mailari eusteko ere borrokan aritu beharko du. Gainera, aurten inoiz baino talde gehiagok galduko dute maila, federazioak multzoak berregokitu egingo dituelako.

Hain zuzen, sei talde jaitsiko dira Lehen Mailatik. Horiei arrastreak gehitu behar zaizkie, eta itxura guztien arabera Oñatiko Aloñamendi taldeak maila galduko du EBAn azkenengo postuan dagoelako. Beraz, hamar taldeko multzo honetatik

Jaitsiera fasea hasteko bost garaipen eta hiru porrot ditu Tabirakok

zazpi agur esan diezaiokete maila horri.

Tabirako Baquerentzako albisterik onena, ondo kokatuta dagoela da: bost garaipen eta hiru porrot ditu, eta 3. tokian ekingo diote jaitsiera faseari, Biok Zerbitzuak taldeagaz berdinduta. Goitik, Araberri eta Lizuan.com taldeak ditu, biak garaipen bakarrera. Azpitik, Autocares Artieda, La Salle eta Mondragon Unibertsitatea dau-

de, garaipen bakarrera hauek ere. Beraz, San Ignacio eta La Alcohonera taldeak kenduta (garaipen bi eta bat, hurrenez hurren), lehia estua egongo da gainerakoen artean.

Tabirako Baquek hiru garaipenegaz dagoen Oncineda taldearen aurka jokatu du zapatuan. Teorian, irabazteko lehia da.

Emakumeak bolada onean

Emakumeen taldea boladaka dabil aurten. Ligari lau garaipenekin ekin zioten. Ondoren, urte amaieran lau lehia galdu zituzten. Harrezkero gora egin dute eta azken sei partiduetatik bost irabazi dituzte, sailkapeneko goialdeari begira ipini direlarik. ■ J.D.

Sarasola, Garitaonandia eta Ardanzak zilarra saskibaloian



Aitziber Ardanza, Ane Sarasola eta Olatz Garitaonandiak autonomien arteko Espainiako Saskibaloitza Txapelketan parte hartu zuten Euskadiko Selekzioagaz. Valladoliden (Espainia) jokatu-tako txapelketan, haurren kategorian eta kadeteetan zilarra irabazi zuten Durangaldeko hiru jokalariek. ■ J.D.

Entrenatzaile ikastaroa hasiko dute Durangon domekan

Tabirako Baqueren laguntzagaz, Bizkaiko Saskibaloitza Federazioak bigarren graduako entrenatzaile ikastaroa abiatuko du domekan Durangon. Ikastaroak ez du balio ofizialik izango eta ezta balio akademiko araurik ere.

Klaseak hainbat domekatan eta jai egunetan zehar emango dituztela jakinarazi dute. Izena eman dutenek edozein duda badute, federazioak e-mail bat ipini du zalantzak argitzeko: icamarero@bizkaibasket.com.

Saskibaloitza federazioak ildo horretako hainbat ikastaro antolatzen ditu urtero Bizkaiko herrietan. ■ J.D.

ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Sei Nazioen Iruzurra

Sapuzaharrak beteren taldea Sei Nazioetako Torneora joan da oraintsu, partida bat ikustera. Jean Clauderen bitartez lortu genituen sarrerak, Frantzia eta Irlandaren arteko norgehiagoka ikusteko. Otsailaren 10ean Durangotik irten eta hamasei orduko bidaia egin ondoren, Parisera heldu ginen larunbat goizean.

Turismo apur bat eginda, Saint Denisera abiatu ginen. Hotz itzela egiten zuen, zero azpitik 10 gradu gutxi gorabehera. Baina berdin zitzaigun, bertan ginen eta partida itzela genuen aurrean.

Zelaian talde biak beroketa ariketak egiten, eta harmailetan gero eta jende gehiago, 80.000 ikusle inguru, antolatzaileen esanetan. Talde bien 15ekoak megafoniatik esan ondoren, bat-batean zurrumurrua zabaltzen hasi zen, eta guk frantsesez piperriek ere ulertzen ez dugunez, gure gidariari galdetu genion: "Zer gertatzen da Jean Claude?". Erantzunak hoztuta utzi gintuen: "Itxuraz partida bertan behera utzi nahi dute izotza dela-eta".

Esan eta izan, handik bost minutura jakinarazi zuten partida bertan behera gelditzen zela izotza zela-eta. Sinestezina badirudi ere, ez da horrelakorik gertatu gutxienez azken 50 urteetan. Gainera, Stade de France estadio berria da, non nazioarteko mailako futbol eta errugbi partidak jokatzen diren.

Askotan aipatzen da jarraitzaileak errespetuz sartu behar direla zelaian, eta errespetuz jokatu behar dutela taldeekin, baina honako honetan jokalariek eta agintariak errespetu gutxi adierazi zieten zaleei. Inoiz ez nuen usteko errugbiari buruz gaizki esaka arituko nintzenik, baina kasu honetan jokoan nazioarteko mailan izarrak diren jokalariek eta epaileek ez gintuzten aintzat hartu, jakin-nan halako partidetarara leku askotako zaleok hurbiltzen gara.

Praderak jantzi du txapela hirugarren urtez jarraian

Laura Saez bikotearekin batera irabazi du aurten Euskadiko paleta-goma txapelketa



Txapelketa jokatu den hiru aldietan irabazi du Praderak.

Gaur egun, paleta-goman Euskal Herriko erreferente nagusienetakoa dela erakutsi du beste behin Itsaso Pradera mallabitarrak. Laura Saez eta biek uste baino errazago menderatu zituzten Irazustabarrena eta Arrieta (30-17) Euskadiko paleta-goma txapelketako finalean. Horrela, txapelketa jokatu den hiru aldietan jantzi du txapela Praderak, guztietan.

Bigarren mailako finalean, osterara, Gaxi Gallastegi atxondarrak eta Leire Etxanizek irabazi zuten, 30-29 Araistegi eta Lejarragoitiaren kontra. Partidu gogorra izan zen.

Kluben arteko finalak

Pilota klubena Euskadiko txapelketako binakako finalean, Berasaluze IXak eta Perosanzek 22-19 menderatu zituzten Lopez de Aldai eta Diez, Bergaran. Bestalde, Atxondon, Mikel Iraurgik eta Alberto Alvarezek frontenis finala 28-24 irabazi zuten, Beitia eta Porresen aurka. Durangon jokatuako zesta-ko finalean, Zumaia, Gasteiz, Berriatua eta Markina izan ziren garaile. Bizkaiko trinkete txapelketako finalean, Uriarte eta Antxiarentzat izan zen txapela, Gordon eta Ugarteren aurka 40-35 irabazita. ■ J.D.

Arantza Morenok Espainiako marka berria ezarri du xabalina jaurtitzan

Jaurtiketa Luzeen Euskadiko Txapelketan ezarri du Espainiako errekorra; guztira, Bidezabal taldeak 12 domina lortu ditu

Zorrozan jokatuak Jaurtiketa Luzeen Euskadiko Txapelketa oso emankorra izan da Bidezabal Atletismo Klubarentzat. Hamabi domina lortu ditu (sei urrezko) eta Arantza Morenok errekor berria ezarri du.

Morenok xabalinan urrezko domina bi irabazi ditu, 500 eta 600 gramoetan. Goi mailan ibili zela esatea gutxi da. 600ekoan bere aurreko marka metro bi hobetu zuen (47,41 metro), baina 500ekoan etorri zen ezustekoa: 52,29 metroko jaurtiketaz Espainiako errekor berria ezarri zuen gazteen mailan.

Xabalina ez ezik, eskubaloia ere praktikatzen du Morenok, eta kirol batean zein bestean nazioarteko txapelketetan aritu izan da. Bietako bat lehenesteko unea heltzean zeinekin jarraituko ote du?

Kadeteetan Leire Gorritxategik ere urrea kolokatu zuen

(39,53 metro) xabalinan. Zardona anaiek bina domina irabazi zituzten: Asierrek urrea eta zilarra jantzi zituen euskal barran eta disko jaurtiketan; Iñigok brontzea eskuratu zuen modalitate bietan.

Libe Solozabal Euskadiko txapeldun izan zen mailu jaurtiketan (24,81 metro) eta Ainhoa Izagirrek lagundu zion podiumeko bigarren tokian. Mailu jaurtiketan urrea jantzi zuen beste bat David Fuentes izan zen (43,74 metro). Azkenik, Bryan Slash-ek xabalinan eta Ziortza Zarragak disko jaurtiketan brontzea eskuratu zuten.

Krosean ezin

Espainiako Kros Txapelketan zelaian-zehar, emakumeen lehia lehenengo hogeien artean geratzea zuten helburu Belit Solar eta Iraia Garciak, baina 51. eta 69. amaitu zuten. David



Morenok xabalina ez ezik eskubaloia ere praktikatzen du.

Garcia 65. sailkatu zen seniorretan eta Iraia Sarriugarte 55. gazteetan.

Asteburuko txapelketak

Asteburuan pista estaliko Espainiako txapelketa jokatu dute

gazteetan eta Ander Santosek domina bat irabazi dezake 800 metrotan. Azkenik, pista estaliko Espainiako beteranoen txapelketan, aurreko errekorra hautsi gura du Salvador Casalek 800 metrotan. ■ J.D.

Espainiako moto txapelketarako lehen urratsa Aitor Martinezek

Hasi berri duen denboraldiko helburuak azaltzerakoan, Abiadurako Iparraldeko Txapelketa (600 zaldikoa) irabazi gura zuela adierazi zuen Aitor Martinez motor gidariak, 2013an Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko. Denboraldia hasteagaz batera hasi da esandakoa zirkuituan gauzatzen abadiñarra.

Albaceten jokatuak lehen lasterketa irabazi egin zuen abadiñarrak

Joan zen asteburuan Albaceteko zirkuituan hasi zen Iparraldeko Txapelketa eta estreinako lasterketa irabazi egin zuen. Eguraldi aldrebesa izan zuten asteburuan eta horrek prestaketa saioak zaildu zituzten pilotu guztiei. Martinez aritu zen ondoen arlo horretan.

Txapelketari dagokion hurrengo lasterketa apirilaren 15ean izango da Nafarroako Arcos zirkuituan. Hitzordu hori prestatzeko Burgosko (Espainia) Ventilla de Nofuentes motokros zirkuituan egingo ditu entrenamenduak datozen asteetan. ■ J.D.

Madrildarrek abantaila hartu dute errugbiko promozioan

Durango Ilarduyak 15-19 galdu zuen etxean

Durango Ilarduyak eta Madrilgo Arkitekturak jokatuak partidan, madrildarrentzat izan zen norgehiagoka (15-19). Ohorezko B Mailari eusteko promozioari dagokion joaneko partida jokatu zuten, Arripausuetan. Partida estua jokatu zuten talde biek, baina Arkitektura finago aritu zen eta lau puntuko abantailagaz bueltatu zen etxera.

Itzulerako norgehiagoka martxoaren 17an jokatu dute

eta Durangoko klubari partidua irabaztea beste erremediorik ez zaio geratzen. Galduz gero, Espainiako Mailako bosgarren sailkatuaren aurka jokatu luke azken kanporaketa.

Beteranoen triangularra

Bestalde, martxoaren 12an, beteranoen triangularra jokatu dute DRTK, Arrasatek eta Mungiak Durangoko Arripausueta zelaian, 18:00etan. ■ J.D.

Eskola arteko xake lehiako azken jardunaldia, Elorrion

Hamasei onenak finalerako sailkatuko dira; eskualdeko xakelariak badituzte aukerak

Zaldi Baltzaren antolakuntzagaz, eskola arteko xake txapelketako laugarren eta azken jardunaldia hartuko du Elorrioko Txintxirri ikastolak domekan, 10:00etan. Benjamin, kimu eta haur kategoriako 200 bat gaztetxo batuko dira guztira.

Maila bakoitzean punturik gehien batutako 16 xakelariak Sestaon jokatu dute finalerako sailkatuko dira.

